

74. EUSKAL SOZIOMETROA (2021eko urria) Prensa oharra

SARRERA

74. Euskal Soziometro hau 2021 urteko bigarrena da. Bertan biltzen dira herritarrek egiten duten “egoeraren balorazioa” eta dituzten “jarrera eta balio politikoak”.

Landa lana 2021eko irailaren 27a eta urriaren 1a bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Euskadiko egoera politikoaren eta ekonomikoaren balorazio positiboa

Euskadiko egoera politikoaren balorazio positiboa egiten dute biztanleek; % 66k uste du ona edo oso ona dela. Halaber, egoera ekonomikoari buruz egiten den balorazioa positiboa da. Hala, hamarretik zazpi uste dute Euskadiren egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela (% 70). Aldiz, gehienek uste dute Espainiako egoera politikoa (% 71) eta ekonomikoa (% 71) txarrak edo oso txarrak direla.

Euskadiko arazo nagusiei dagokienez, lan-merkatuarekin lotutakoak dira, alde handiz, herritarrek gehien aipatzen dituztenak. Horrela, % 59k hiru arazo nagusien artean aipatzen ditu. Bigarrenik, distantzia handira, “egoera politikoarekin, politikariekin eta gatazka politikoarekin” lotutako arazoak leudeke (% 17). “COVID-19aren pandemiari” lotutako arazoak (% 16) aurrekoetan baino dezente gutxiago aipatzen dira (% 39k aipatu zituzten maiatzean), eta hirugarren postuan kokatzen dira. Laugarren aipatuena “arazo ekonomikoak” dira; arazo horiek aipatzen dituztenak maiatzean baino bi puntu gutxiago direlarik (% 15). Lau arazo nagusi horien ondoren, biztanleriaren % 10 inguruk honako hauek aipatu dituzte: “etxebizitza eta etxe-gabeteak” (%11), “osasungintza eta Osakidetza” (%11), “Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura” (%10) eta “delinkuentzia eta segurtasun falta” (%9).

Gainera, biztanleen bi herenek (% 67) diote ez dutela arazorik hilabete amaierara iristeko; % 7k arazo asko dituztela, eta % 26k, berriz, arazo batzuk. Azken urtean zertxobait jaitsi da hilaren amaierara iristeko arazoak dituztela diotenen ehunekoa.

Herritarren artean konfiantzarik handiena sortzen duen erakundea Unibertsitatea da (% 87), eta ondoren datoz euskal erakundeen multzoa. Horrela, hamar herritarretik zazpi baino gehiagok diote euskal erakundeengan konfiantza dutela: Eusko Jaurlaritza (% 78), Foru Aldundiak (% 73), Udalak (% 72) eta Eusko Legebiltzarra (% 71). Konfiantza gutxien sortzen duten erakundeak dira bankuak (% 16), Espainiako monarkia (% 17) eta alderdi politikoak (% 19).

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Herritarren erdiek baino gehiagok diote hauteskundeetako emaitzek eragina dutela euren eguneroko bizitzan; aldiz, hamarretik lauk uste dute eragin gutxi edo batere ez dutela

Herritarren % 63rentzat botoa ematea eskubidea da, eta % 32ren ustez betebeharra da. Azken urte hauetan handitu egin da botoa eskubide bezala hartzen dutenen portzentajea, erabili daitekeena edo ez, herritar ororen betebeharrak bezala hartzen dutenen parean.

Herritarren erdiek baino gehixeagok uste dute hauteskundeetako emaitzek eragin handia edo nahikoa dutela beren bizitzan. Batez ere, udal-hauteskundeek (% 56), ondoren autonomikoek (% 58) eta, hirugarrenik, hauteskunde orokorrek (% 51). Bestalde, hamar herritarretik gutxienez lauk diote hauteskundeetako emaitzek gutxi edo batere ez diotela eragiten euren eguneroko bizitzari (udaletakoek % 43, autonomikoek % 41 eta orokorrek % 47).

EAJ-PNV da bostetik gorako balorazioa lortzen duen alderdi politiko bakarra, 0tik 10erako eskalan 5,2. Ondoren, 5etik behera daude PSE-EE (4,4), EHBILDU (4,0) eta Elkarrekin Podemos (3,9). Balorazio txikiena jaso duten alderdiak PP + Ciudadanos (1,8) eta Vox (0,7) dira. Maiatzeko emaitzekin alderatuta alderdi guztiek hobetu dute beren balorazioa, azken bi horiek izan ezik.

Buruzagi politikoei dagokienez, baloraziorik altuena Iñigo Urkullu lehendakariari dagokio, 5,5eko puntuazioa lortu baitu 0tik 10erako eskalan. Bigarren postuan, bostetik gora ere, Maddalen Iriarte dago (5,2). Ondoren, hurrenkera honetan, Idoia Mendia (4,8) eta Miren Gorrotxategi (4,6). Azkenik, Amaia Martínez (2,8) eta Carlos Iturgaiz (1,9). Liderrek ere balorazioa hobetu dute maiatzeko emaitzekin alderatuta, Carlos Iturgaitzek izan ezik.

Independentziari buruzko jarrerari dagokionez, biztanleriaren % 38 ez dago ados, % 35 alde edo aurka leudeke egoeraren arabera, eta % 22 independentziaren alde dago. Soilik biztanleriaren % 6k ez dio galderari erantzuten.

Maiatzeko aurreko soziometroarekin alderatuta, 3 puntu jaitsi dira independentziaren aurkakoak, aldiz hiru puntu gehitu dira egoeraren arabera alde edo kontra leudekenak, eta puntu bat independentziaren alde daudenak.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.333 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm\%$ 1,7koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2021eko irailaren 27tik urriaren 1era bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 19a